



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urriaren 7a

106. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da arte grafikoen sektorearekin lotutako lehiaketak arautzeko oinarrietan klausula batzuk sar ditzan, Nafarroako Arte Grafikoen Hitzarmeneko lanbaldintzak errespetatu daitezzen, eta zuzeneko esleipenetan baldintza horiei euts diezaizen. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Memoriaren Parkearen handitzea babes dezan eta gure foru erkidegoaren mugari turistikoaren katalogoan sar dezan. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsia (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko zer neurri hartuko dituen Osasun Departamentuak haurdunaldia etetea erabakitzen duten emakumeak prozesu horren amaiera arte Nafarroako ospitale publikoetan artatze aldera. Marisa De Simón Caballero andreak eginga (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin eta CCOO eta UGT sindikatuekin sinaturiko enplegu planari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak eginga (5. or.).
- Galdera, Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordearen bilerari eta Nafarroaren eskubideei egindako eraso eta mehatxuei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak eginga (5. or.).
- Galdera, jakiteko noiz aurkeztuko duen Nafarroako Gobernuak berrindustrializazio plana, Samuel Caro Sádaba jaunak eginga (6. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

- Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2014ko eztabaida antolatze arauak aldatzea (7. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arte grafikoaren sektorearekin lotutako lehiaketak arautzeko oinarrietan klausula batzuk sar ditzan, Nafarroako Arte Grafikoen Hitzarmeneko lan-baldintzak errespetatu daitezkeen, eta zuzeneko esleipenetan baldintza horiei euts diezaiei.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak, 2014ko irailaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arte grafikoaren sektorearekin lotutako lehiaketak arautzeko oinarrietan klausula batzuk sar ditzan, Nafarroako Arte Grafikoen Hitzarmeneko lan-baldintzak errespetatu daitezkeen, eta zuzeneko esleipenetan baldintza horiei euts diezaiei."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arte grafikoaren sektorearekin lotutako lehiaketak arautzeko oinarrietan berariazko klausula batzuk sar ditzan, gutxienez ere Nafarroako Arte Grafikoen Hitzarmeneko lan-baldintzak errespetatu daitezkeen, eskubide eta bete-behar guztiak barne.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sektoreko langileen lan-baldintzak errespetatzeari buruz arestian aipatutako baldintzak mantentzeko, esleipenak zuzenean eta aurretiazko lehiaketarik gabe egiten direnean."

Iruñean, 2014ko irailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Memoria-
ren Parkearen handitzea babes dezan eta gure foru erkidegoaren
mugarri turistikoen katalogoan sar dezan.**

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak, 2014ko urriaren 2an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Memoriaren Parkearen handitzea babes dezan eta gure foru erkidegoaren mugarri turistikoen katalogoan sar dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Gobernua premiatzea Memoriaren Parkean emakumeen omenezko eskultura bat jartzen lagundu dezan, zeinaren aurrekontua, guztira, 36.000 eurokoa baita, 2015erako aurrekontuan 12.000 euroko kontusail izendun baten bidez.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea Sartagudako Memoriaren Parkea gure foru erkidegoaren mugarri turistikoen katalogoan sar dezan eta parkera egindako bisitak bultzatu eta babes ditzan."

Iruñean, 2014ko urriaren 2an.

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zer neurri hartuko dituen Osasun Departamentuak haurdunaldia etetea erabakitzen duten emakumeak prozesu horren amaiera arte Nafarroako ospitale publikoetan artatze aldera.*MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer neurri hartuko dituen Osasun Departamentuak haurdunaldia etetea erabakitzen duten emakumeak prozesu horren amaiera arte Nafarroako ospitale publikoetan artatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak heldu den urriaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dez

Nafarroako Parlamentuak irailaren 16an onetsi zuen 2014-2020 Osasun Plana. Planaren arabera, Nafarroako Osasun Sistemak baliabide berekien bidez eginen ditu haurdunaldiaren borondatezko etendurak.

Osasun Departamentuak zer neurri zehatz eta noiz hartuko ditu haurdunaldia etetea erabakitzen duten emakumeak prozesu horren amaiera arte Nafarroako ospitale publikoetan artatze aldera?

Iruñean, 2014ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin eta CCOO eta UGT sindikatuekin sinaturiko enplegu planari buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin eta CCOO eta UGT sindikatuekin sinaturiko enplegu planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, urriaren 9ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak ahoz erantzun dez

Zergatik sinatu du 2014-2016 urteetarako enplegu plan baztertzaila bat berriro ere, Andaluziako lan-funtsen funtzionamenduarekin antzekotasunak dituen, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin eta UGT eta CCOO sindikatuekin, Kontuen Ganberak atera zituen ondorio larriak ikusita?

Iruñean, 2014ko urriaren

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordearen bilerari eta Nafarroaren eskubideei egindako eraso eta mehatxuei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordearen bilerari eta Nafarroaren eskubideei egindako eraso eta mehatxuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordearen hilaren 7ko –asteartea– bileraren aurrean eta Estatuak Nafarroaren eskubideei etengabe egindako eraso eta mehatxuen aurrean, hauxe jakin nahi dut:

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik egungo esparrua sakonki berrikusteko, gure eskubideen aurkako mehatxu eta eraso gehiago egitea ekidite aldera?

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko noiz aurkeztuko duen Nafarroako Gobernuak berrindustrializazio plana.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko noiz aurkeztuko duen Nafarroako Gobernuak berrindustrializazio plana.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den urriaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak noiz aurkeztuko du berrindustrializazio plana? Zer oinarri izanen ditu?

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2014ko eztabaida antolatzeko arauak aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 6an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek idazki bat aurkeztu dute Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2014ko eztabaida antolatzeko arauak aurkaratzeko. Idazki hori ikusita, hona ERABAKIA:

1. Aintzat hartzea Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2014ko eztabaida antolatzeko arauak aurkaratzeko idazkia.

2. Xedatzea ondokoak izanen direla Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2014ko eztabaida antolatzeko arauak:

“Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2014ko eztabaida antolatzeko arauak Urriaren 16a eta 17a

Urriaren 16a

Eztabaida eginen da Erregelamenduko 201. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta Nafarroako Gobernuako Lehendakariaren mintzaldiarekin hasiko da.

Mintzaldi hori amaiturik, bilkura ordu erdiz etenen da. Bilkura berriz hasten denean, mintzatuko dira mintzaldi-eskaera egiten duten parlamentu-talde guztien eledunak –30 minutuz, gehienez ere– eta atxiki gabeko parlamentariak –15 minutuz, gehienez ere–.

Mintzaldien hurrenkera parlamentari gehien dituen taldetik gutxien dituenakoa izanen da. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldea salbuespena izanen da, azkena izanen baita mintzatzeko.

Mintzaldiak amaituta, Gobernuako Lehendakariak erantzun eginen die. Ondoren, ihardespen-txanda bat irekiko da horretarako eskaera egiten

duen parlamentu-talde bakoitzeko eledunarentzat, hamar minutukoa gehienez, eta atxiki gabeko parlamentariarentzat ere bai, bost minutukoa gehienez.

Azkenik, eztabaida Lehendakariaren mintzaldiarekin bukatuko da.

Eztabaida bukatzen denean, hamabost minutuko epea irekiko da, parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko parlamentariak Mahaiari erabaki proposamenak aurkeztu ahal izateko. Parlamentu-talde bakoitzak gehienez ere bost erabaki proposamen aurkeztu ahalko ditu, eta atxiki gabeko parlamentariak gehienez bi. Sinatzaileek proposamen horiek bidali beharko dituzte ere egoki den unean adieraziko zaien posta elektronikoko kontu batera.

Urriaren 17a

Mahaiak onarturiko proposamenak 09:30etik aitzina eztabaidatuko dira Osoko Bilkuran.

Erabaki proposamenak eztabaidatuko dira mintzaldien hurrenkera berean. Hau da, parlamentari gehien dituen taldetik gutxien dituenak, eta Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldea azkena izanen da mintzatzeko.

Parlamentu-talde bakoitzak bere proposamenak batera defendatuko ditu, hamar minutuz gehienez. Ondoren, taldeen interbentzioen txanda bat irekiko da, aldekoa zein kontrakoa, eztabaidaren hurrenkera berean, eta ihardespen-txanda bat ere. Bi txanda horiek bost minutukoak izanen dira. Atxiki gabeko parlamentarien interbentzioek irauten dute, orotara, parlamentu-taldee esleitutako denboraren erdia. Parlamentu-talde bakoitzaren proposamenak eztabaidatu ondoren, banan-banan bozkatuko dira erabaki proposamenak?

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

